

ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Vanessa Velez de Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Sagues berriz urbanizatzeko proiektuaren gainean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2011n Monpaseko pasabidea eraikitzen hasteko puntuan ziren makinak kendu zituztenetik, asfaltozko zabalgunek handia besterik ez da Sagues, eta Aste Nagusiko kontzertuetan, eta, orain dela gutxi, surf-jaialdian, ematen zaion erabilera besterik ez du izaten. Ia urte osoan, zementu-xafla huts bat besterik ez da Sagues.

2019an, nazioarteko ideia lehiaketa egitea proposatu genuen, ozeanoen erabilera jasangarriari lotutako azpiegitura bat sortzeko Saguesen, munduan erreferente izan zitekeena. Proiektu hura bateragarria izan liteke taxuzko skatepark batekin, hondartzako txoko horretara surfa egitera hurbiltzen diren donostiarrek erabiltzeko.

Sei urte joan dira harrezkero, eta urtea amaitu baino lehen hasiko dela nazioarteko ideia lehiaketa hori egiten esaten du oraindik ere gobernu taldeak. Hala erantzuten dio gobernu taldeak Alderdi Popularrari aukera izaten duen guztietan; astelehenean izandako batzordeetan orain hurrena!

Hori dela eta, haxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio urtea amaitu baino lehen deitzeko Saguesko hiri-ingurunea eraldatzeko nazioarteko ideia lehiaketa. Proiektuak, ahal dela, ozeanoen kontserbaziora eta itsas ingurunearen jasangarritasunera bideratuta izan behar luke.

Donostian, 2025eko irailaren 19an.

Vanessa Velez De Pablos

Alderdi Popularraren Udal Taldeko zinegotzia